

Abiadura Haundiko Trena gelditzeko mendi ibilaldia antolatu dute

■ Eusko Jaurlaritzak aprobatuta dauka plana ■ 'AHT Gelditu!' taldekoek diote asko direla trenaren kontra egoteko arrazoiak ■ Abenduaren 2an, goizeko 09:00etan, Gudarien plazatik abiatuko da mendi martxa.

MENDI ibilaldiak antolatu ditu 'AHT Gelditu!' plataformak, Donostia-Bidasoa inguruko herri eta auzo batzuetan (Hernani, Irun, Oiartzun, Ergobia...).


Helburuak dira AHT-k kalte haundia egingo duela esatea eta gizarteari horren aurrean erreakzionatzeko eskatzea.

"KONTRA EGOTEKO ARRAZOI POTOLOAK"

AHT Gelditu! taldekoek jakinarazi digutenez, "arrazoi oso potoloak" daude protesta egiteko: "Trena 250 km/orduko ibiliko da azkarrena. Abiadura horretan 20.000 pertsonako herri batek adina energia kontsumitzen du. Gure eskualdean, 4.760 metro egingo ditu zubi gainean; 12.400 m tunelean. Trenaren bidean 13 zabortege toxiko daude. Oso ondo zaindutako lurak puskatuko ditu (Astigarragako erribera...). Gizarte zati batentzat bakarrik egingo dute eta hirigune haundiak bakarrik lotuko ditu".

Horiek dira, trenak egingo dituen kalteak, plataformako kideen hitzetan.

JAURLARITZA GUSTORA Jaurlaritzak gustora dago planarekin. Berak esanda, "Europar sartzeko beharrezkoa du-



Hau izango da tren berriaren bidea, goitik begiratuta. (Ez da plano ofiziala).

gu. Orain egiten ez badugu beste norabaite eramango dute. Bestalde, Gasteiz bi porturekin lotzea (Pasaia eta

Bilbo) oso inportantea da". Eusko Jaurlaritzak alegazio ia guztiak onartu omen ditu. Oraindik ez da atera

obrak noiz hasiko diren. Dena dela, Jaurlaritzak dioenez, hori Madrilera eta Europak erabakiko dute. □

■ ATLETISMOA

Hernaniarrak Donostiako Maratoian

■ Donostiako Maratoia jokatuko da gaur eta zortziren bat hernaniar han izango dira 42.195 metroak egiteko. Aurretik, ordea, maratoiaz gain 10 maratoi txikia ere antolatu dute eta hor ere aterako dira herritarrek.

Karrera Anoetatik aterako da goizeko 09:30etan. Maratoi txikia 09:40etan. □

ATENTATUA BEASAINEN

kontzentrazioa atentatua salatzeke

■ EA, PSE-EE, EAJ eta EB deitu dute ■ Astelehenen 20:00etan.

OSTIRALEAN trafikoa zuzentzen ari ziren bi ertzain hil dituzte (Jabier Mijangos eta Ana Gorostegi) Beasainen izandako atentatuan. Beasainen. Hernaniko EA, EAJ, PSE-EE eta EB-k, hernaniar guztiak kontzentrazioa deitu ditu "ETAK egin duen krimena salatzeke", Kronikara bidalitako prentsa komunikatuan. Kontzentrazioa "ETA EZ" lemapean egingo da, arratsaldeko zortzietan. □

'Lana bilatzeko teknikak'

■ LANA bilatzeko teknikei buruzko hitzaldia astelehenen Biterin. Guraso bakarreko familien elkarteak eman- go du. 19:30etan. □

Ipuinak Biterin

■ **LIBURUTEGIAK** ipuin kontaketa antolatzen ditu eta astelehenen honetan da hurrengoa. Bi saio izango dira: 3/4 urteko umeentzat, 17:30etan; eta 5/8 urte bitartekoentzat 18:00etan.

Kontalaria Itziar Zubizarreta izango da. Ipuin kontaketa liburutegian bertan da, ume gelan. □

Zirkoa Sagastialden

■ **HOLIDAY** zirko dago Hernanin asteburu honetan. Payasito Iñigo 10 urteko pailazoa izar dela, ikuskizun asko eskaintzen ditu: ekilibrista, animalia, suge, trapezistak... Gaur hiru sesio emango ditu: 12:00-17:00-19:15. □

■ ERRUGBIA

Hernani-Bilbao

■ 12:00etan hasita, hernaniarrek UPV-Bilbaoren kontra jokatuko dute gaurko partidua. Benben-en mutilak ez daude lujo haundirik gabe dabilta sailkapenean eta gaur ez daukate puntuak Bilbora joaten uzterik

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)



SANTA BARBARA

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Peugeot 306 SV	TD 3 urte	1.675.000 pta
Peugeot 206	Diesela	550.000 pta
Peugeot 205	Gasolina	580.000 pta
Peugeot 309	Gasolina	190.000 pta
Ford Scort	16 balbula	550.000 pta
Citroen AX	Diesela	390.000 pta
VW Polo	Gasolina	300.000 pta
Renault Express	Diesela	650.000 pta
Land Rover	Diesela	175.000 pta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

Omenaldi goxoa eta musikala

■ Jende asko bildu zen Manuel Yabenen omenaldian ■ Alkateak “Yabenena musikarenganako maitasunak gidatutako bizitza izan da”.



Manuel Yaben, Pilis Villaverde, familia eta Mertxe Etxeberria Alkateak omenaldiko kantu emanaldian.



Zaraguetak, Odriozola parrokoak eta beste hainbatek agurtu zuen Yaben. Kantu emanaliko une bat.

MANUEL YABENEK Hernaniko herriaren omenaldia jaso zuen larunbatean. Pilis Villaverde emaztea eta familiarekin joan zen jendetza haundia bildu zuen ekitaldian. Udale-

txeko sarreran aureskua dantzatu zitzaion eta Musika Eskolako musikarekin sartu zen Areto Nagusira. Han, Etxeberria alkateak Yabenen lana laudatu eta oroigarria eman

zion. Musika Eskolako ikasleen emanaldiak borobildu zuen omenaldia. Areto bete jende bildu zen eta bukaeran, Manuel Yabenek herritar eta lagun askoren agur beroa jaso zuen.

Floridako emakume bazkaria exitoa

■ Edade guztietako 130 emakume bildu ziren Etxeberri elkartearen.



Floridako emakumeak bazkaritan atzo; zenbat rekuerdo eseri ote ziren elkarren ondoan!

ESAN eta egin. Floridako emakumeek lagunarte ederra pasa zuten atzo elkarrekin. Etxeberriko elkarte dena bete zen. Hala ere, bazkalondo bakarra motxetxoa geldituko zen hainbeste urte eta gero. □



UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK
Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598- Mobila 630-033080
Faxe 943.552.067
20120 HERNANI

BERTSOLARI TXAPELKETA

Lujanbio eta Agirre Hendaian

■ Sorozabal, Arzallus, Sarriegi eta Lopategirekin kantatuko dute ■ Beltzenia frontoian, 16:30etan.

SEMIFINALETAKO bigarren saioa dute gaur Maialen Lujanbio, Unai Agirre eta beste 4 bertsolarik. Maialenek Etxar- (757.5) eta eustea bakarra nahikoa du finalean sartzeko. Unai Agirrek, berriz, 693 puntu ditu eta oso lan zaila dauka finalean sartzen. □

ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA

Santa Barbara-Gure Txoko Elizatxo-Etxeberri, semifinalak

■ Astelehenean jokatu dituzte ■ Ur-Mia elkartearen.

ELKARTE arteko Mus Txapelketa sartu da azken fasean. Final laurdenetatik semifinalera pasa dira: Santa Barbara A, Gure Txoko A, Elizatxo B eta Etxeberri B. Partidak bihar jokatu dituzte Ur-Mian. Finala, berriz, datorren ostegunean da, eta saribanaketa abenduaren 1ean jokatu da. □

JUBILATU EGOITZA

Hitzaldia autoestima'ri buruz

■ Asteazkenean da ■ Iratxera joateko bada oraindik autobusean lekua.

JUBILATU egoitzan hitzaldia izango dute azaroaren 28an. Arantxa Martinek emango du 18:00etan

kok eman du izena eta bi autobus ateratu dituzte. Lekuren bat edo beste badago oraindik betetzeko eta nahi duena Jubilatu egoitzatik pasa izena ematera. Prezioa: 3.200 pta. Bazkaria, bidaia eta oparitxo bat sartzen dira hor. □

ANDRA MARI MIRARIGILEARI HIRURRENA

Errosario Santua 18:45etan eta Meza Santua 19:00etan, gaur

■ GAUR, bihar eta etzi hirurreneko elizkizunak izango dira San Juan Bataiatzailearen parrokan. □

■ FUTBOLA

Hernanik 1-2 irabazi Trintxerperi

■ GORENGO mailakoek irabazi egin zuten atzo Pasaian. Garaipen honek arnasaldi ederra emango dio taldeari. Datorren partidua Irunen kontra jokatu dute, Zubipen.

■ BOLEIBOLA

UPV Hernanik irabazi atzo ere, 3-0 Sapuherriren kontra

■ HERNANIKO taldea partidurik galdu ezinda dago. Partzialak: 25-23; 25-20 eta 25-11. Oraingo, zortzitik zortzi.

AGENDA	❖ ZINEA <i>Lucia y el sexo</i> Biterin, 19:30etan.	❖ ZIRKOA <i>Holiday zirkoa</i> Sagastialden, 12:00etan; 17:00etan eta 19:15etan
	❖ MUSIKA TRAKETS Oialumen, 19:30etan	

IRAGARKI MERKEAK

■ Baserrian gorotza daukagu sobrate eta behar duenari emango genioke debalde. Interesatuak deitu: ☎ 943. 33 04 62

■ Mendiko kamioia salduko genuke. GMC bat da. Interesatuak deitu: ☎ 629. 29 36 63